

FUNTSEZKO JARDUERAK

Funtsezko jarduerak negozio batek ondo funtzionatzeko egin behar dituen jarduerak dira. Jarduera batzuk beste enpresen eskuetan utzi daitezke, baina beste batzuk, aldiz, ez. Zehazki, gure enpresak hiru funtsezko jarduera izango ditu produktuaren diseinua, salmenta eta banaketa.

Gure enpresak ekoizpenaren arloan ez du ardurarik izango. Hau da, enpresa berak diseinatuko du, baina ekoizpenak atzerriko enpresa batek egingo du, iFlytek (Enpresa txinatar bat adimen artifizialaren arloan munduko enpresa nagusienetariko bat dena). Diseinuaren esparruan, hasiera batean pertsona bat egongo da, Itziar berak produktua sortu zuelako eta inork baino hobeto ezagutzen duelako bere funtzionamendua eta sortzeko ahalmen handia duelako.

Koaderno berezi honen salmenta hainbat aukera ditu. PICE-ren denda ofizialean (Gasteizen), web orrialdearen bitartez edo telefonoz. Gainera, El Corte Inglés eta Mediamarkt dendetan eskuratu ahalko duzu.

Talde horrek produktu hori ekoiztu ondoren guk banaketaz (salmentarekin batera) arduratuko gara. Koaderno teknologikoa saldu ondoren, banaketa oso urrun bada Seul banaketa enpresak egingo du, aldiz, banaketa gertu bada, hau da, Gasteizen, enpresako kide batek egingo du. Horretarako, furgoneta bat erabili beharko dugu banaketa ahalik eta azkarren egiteko.